

**2014KO URRIAREN 16AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamaseia.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamalau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko uztailaren 17ko aktaren onespena.

2014ko uztailaren 17ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- GUGARRETA, 23 AREAKO C LURSAILAREKIKO HIRI ANTOLAKETA EGITASMO BEREZIA: birjarpen helegitearen ebazpena.

Alkate jaunak , hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du, hau da:

“Gaia: Gudugarreta, 23 areako Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziaren behin betiko onespenerakiko aurkeztutako birjarpen helegitea ebaztea.

AURREKARIAK

1.- 2014ko uztailaren 14an Udalbatza Osoak egindako bileran, behin betiko onespenera eman zion, Gudugarreta, 23 areako Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziari.

2.- Behin betiko onespenera erabakia, Diario Vascon 2014-07-24an eta 2014-08-01ean GAOean argitaratu zen.

3.- Horrezaz gain, erabaki hori jabeen nahiz jarduera-eremuko afektatuei jakinarazi zitzaion.

4.- Antonio Berbel Pérez jaunak eta Martin Aizpurua Aramburu jaunak, azken honek Miguel Aizpurua Ayerbe oinordekoen ordean, 2014ko irailaren 1ean erregistro sarrera data duen birjarpen helegitea aurkeztu zuten, ondorengo adieraziz:

- Haserako onspenerari aurkeztutako alegazioaren arrazoiak berrestera dator, funtsean.
- Udalak aipatu alegazioari emandako erantzunarekiko desadostasuna adierazten dute.
- Industrialdeko planeamendua bizitegi eremuarena baino zaharragoa izatea ez omen da nahikoa arrazoi industria lursaileko jabearen “interesak lehenesteko”.
- Bizitegi eremuaren garapen eza ezin omen zaio jabearen egotzi, “higiezinen krisia, ziklo ekonomikoa, eta abar” delakoei baizik.
- Industria eremuko lerrokaduren aldaketak bizitegi erabilereira eragiten dien kaltea berresten dute.
- AU.23 Gudugarreta II areako Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren behin betiko onarpena deuseztatzea eskatzen dute.

5.- 2014ko irailaren 15ean, arkitektoak aurkeztutako birjarpen helegiteari buruz, ondorengo txostena eman du:

“Lehenik eta behin, garbi utzi behar dugu 2014ko ekainaren 10eko txosten teknikoan ez dela alegazioen deuseztatzea bizitegi eremuaren garapen ezagatik

arrazoitzen. Txostenak egiten duen gauza bakarra Plan Bereziaren onespena bere testuinguruan jartzea da.

Edonola, gogorarazi behar dugu **lurjabeen betebeharra** dela eremua garatzea planeamenduak ezarritako epeetan, testuinguru ekonomiko orokor edota partikularra edozein dela ere. Planeamenduak kasu honetan epe zehatzik ezartzen ez duenez, beronen indarraldia hartu behar da aintzat, hau da, 8 urte indarrean sartu zenetik. Beraz, 2015. urtean amaitzen da eremua garatzeko ezarritako epea eta ez dirudi aipatu betebeharra gauzatuko denik.

Beraz, txostenak adierazi nahi zuena zera zen: hiri antolaketaren epe ertain eta luzeko ikuspegitik arrazoizkoagoa dirudi industrial eta bizitegi erabileren arteko bizikidetzaz arazoak bizitegi eremuaren aurreikuspenak aldatuz konpontzen saiatzea, dagoeneko garatua dagoen industrialdea baldintzatuz baino.

Gure ustez, garbi dago bizikidetzaz arazo horiek jatorrizkoak direla eta ezin dakizkioke orain onartutako plan bereziari egotzi. Izan ere, ez baita egia plan bereziak erabilera industrialak bizitegi erabileretara hurbiltzen dituenik, izatekotan, urrundu egingo lirarteke, oso modu txikian bada ere.

Onartu berri den antolaketa xehatuaren aldaketak erabilera industrialetara zuzendutako lurzoruaren mugapena mantentzen du ia, eta bizitegi erabileretik distantzia errespetatzen du. Plan Bereziaren aldaketak C lursaileko eraikin industrialaren lerroak besterik ez ditu aldatzen eta ondorioz, bizitegi erabileretatik hurbilen dagoen lur zatia "industrial ez eraikigarria izatek" "industrial eraikigarria izatera" pasatu da. Edonola, erabilera industrialak mantentzen da, kasu batean zein bestean.

Eta bizitegi erabilerentzat bi egoeretan kaltegarriena zein den ebaztea ez da hain erraza, guztiz subjektiboa baizik. Izan ere, lursailean garatuko den jardueraren arabera, eraikinaren babesa onuragarria ere izan liteke bizitegi erabilerentzat.

Ondorioz, antolaketa xehatuaren aldaketarekin ez dira "industria eremuko lursail baten jabearen interesak lehenesten", errekurtsioak dioten bezala, baizik eta bere eskubideak errespetatzea besterik ez da egin, beti ere, legeak xedatutako baldintzak betez.

Izan ere, Udalak hautazko eskubidea baitu hirigintza planeamenduari dagokionez, baina hori ezin da inoiz bidegabekeri bihurtu. Eta kasu honetan, ez dugu arrazoi objektibo bakar bat ere aurkitzen Plan Bereziaren sustatzailearen nahiari aurre egiteko."

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak ondorengo proposamena egiten dio, Udalbatza Osoari:

Lehenik. Antonio Berbel Pérez eta Martin Aizpurua Aramburu jaunek aurkeztutako birjarpen helegitea ez onartzea, deuseztatuz txosten teknikoaren arabera.

Bigarren. *Hartutako erabakiaren berri errekurtsua aurkeztu duenei jakinaraztea, berorren aurka aurkeztu daitezkeen helegiteen aipamena eginez.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte proposamenarekiko:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hirigintza batzordean aipatu nuen gauza bera aipatu nahi nuke, hau da, bizilagun batzuk afektatuta daude eta errekurtsu hau ebazteko proposamenaren alde egonda ere, eskatzen duguna da, beraiek ere hori eskatu dutelako, inpaktua gutxitzea. Horrek eskatzen du pabiloia eraiki behar duenarekin egotea eta pareta hori beste era batea jartzea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Hirigintza batzordean esanda bezala, berarekin egongo gara eta proposatuko zaio ahal den neurrian behintzat hori horrela izatea.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- AA SS ALDAKETA, ERREKARTE I, 32 AREA ETA ERREKARTE II, 2. SEKTOREAREKIKO: hasierako onespena.

Alkate jaunak, proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Errekarte I, 32 area eta Errekarte II, 2. Sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasierako onspena ematea

Proposatzen den aldatetarekin, egun Arau Subsidiarioetan hiri-lurzorua sailkatuta dagoen, Errekarte I, 32 area, 8.243 m²koa eta Errekarte II, 2. sektoreko lurzoru urbanizagarria, 7.671 m²koa, honelako eremua izatea bihurtzen da:

- Hiri-lurzorua (Errekarte, 32 area) 9.983 m²koa.

Egungo Errekarte II, 2. sektoretik gelditzen den azalera, honela sailkatzen da:

- Lurzoru urbanizaezina, 5.931 m²koa.

Proposatzen den Errekarte, 32 areako fitxa urbanistikoan jasotzen dira antolamenduko irizpide eta helburuak.

OINARRI JURIDIKOAK

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 artikulua eta honekin lotuta dauden 87.1 eta 90 eta hurrengo artikulua, izapidetzeari dagokionean.*
- Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,2c) artikulua, organoaren eskuduntzari dagokionean.*

- *Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 47,3i) artikulua, onartzeko quorumari dagokionean.*

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. *Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasierako onespena ematea, ondorengoari buruz: Errekarte I, 32 area eta Errekarte II, 2. Sektorea.*

Bigarren. *Erabakia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, dagokion iragarkia, lurralde historikoaren aldizkarian, Diario Vasco eta Berrian argitaratuz.”*

Jarraian ondorengoa esan du Alkate jaunak (BILDU): “Orain indarrean dagoen plangintza 2007ko Arau Subsidiarioena da nahiz eta horiek 2006ko Lurzoru legeari egokituak ez egon. Momentu honetan 183 etxebizitza eraikiko lirateke plangintza horrek arabera eta 600 m²ko guneez librea geratuko litzateke. Parte-hartze prozesu bat gauzatu zen eta bertan atera ziren ideiak kontutan izanda, proposatzen duguna da eremuaren landa izaera mantentzea, bi baserriak ere mantenduz. Horretarako zenbait baldintza behar ditugu: Errekarte eta Telleri baserriak finkatu (ez gara sartzen eraikuntza horien balioarekin, balio paisajistikoa hartuko genuke oinarritzat), erreka berreskuratu, bailara osoan ingurumen baldintzak errespetatu eta herritarren erabilera publikoa bideratu, oinezkoen bide berria sortu eta horretarako herri gunea eta baselizaren harremana indartu eta horko segurtasuna bermatu eta etxebizitzetara dagokienez, orain 64 etxebizitza eraikiko lirateke. Horrez gain guneez libreak ere bost aldiz gehiago izango lirateke, hau da 600 m²tik 3.000 metro karratura pasatuko ginateke. Errekarte baserria ekipamendu publikoa izatea proposatzen da, auzokoek ikusten zutelako bertan zerbitzu publiko bat emateko beharra egon litekeela nahiz eta prozesu horretan ez hitz egin zein zerbitzu izan daitekeen egokiena, hau liburutegia, eguneko zentroa etab., Horretarako eraikina zahar berri eta egonkortuko litzateke. Aldiz, Telleri baserrian gaur egungo erabilera mantenduko luke. Esan behar da proposamena, legezkoa eta ekonomikoki bideragarria dela eta herritarren eta auzotarrek esandako oinarriekin garatutako plangintza dela. Ez da agian, guk hasiera batean egingo genukeena eta azkenaldian ere aldaketak izan dira. Hasiera batean bost oinezko etxebizitzak planteatzen ziren. Orain bat gutxiago eta Udalak ere bere gain zerbait hartuko beharko luke, adibidez, oinezkoen bidea, baina uste dugu herritarrek esandako gehien egokitzen den proiektua hau izan daitekeela eta horren ondorioz, guk hau babesten dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Al respecto de las actuaciones de Errekarte, o mejor dicho, la inacción que ha presidido la actuación de este Ayuntamiento en Errekarte, creo interesante hacer esquemáticamente las siguientes consideraciones:

1º El Ayuntamiento de Beasain, no la Corporación municipal de Beasain, aprueba un desarrollo en la zona, en base al cual firma un Convenio (en otro argot, firma UN CONTRATO) con los propietarios de los terrenos. Esto se hace cuando hay interés mutuo.

2º A pesar de las reducciones efectuadas por una de las partes para que se respete y lleve a cabo ese CONTRATO/CONVENIO, la otra parte, el Ayuntamiento de Beasain, da la callada por respuesta, incumpliendo lo convenido.

3º Bajo la excusa de estar incurriendo en un desastre de tipo histórico monumental, se pretende declarar monumento algo que por el simple hecho de pasear delante de un escuela de arquitectura, te faculta para rebatir semejante disparate.

4º A la vista de las constantes políticas de esta ideología “de antes clavarla que enmendarla” constatada por este Ayuntamiento sobres asuntos diversos y dispares, y con la sana intención de “socializarlo todo”, o sea, también las responsabilidades, se monta la participación ciudadana, con resultado de pantomima. Un hecho que debiera ser loable en si mismo, con la única intención de echar balones fuera en caso de conflicto, ya que la actual Corporación sabe, porque sabe que el incumplimiento del contrato/convenio va a tener consecuencias económicas.

5º Es por otra parte de suponer, que aún siendo conscientes de que en el municipio no existen alternativas interesantes a una libre competencia, esta inacción favorece una estabilidad de precio venta y alquiler, con el mantenimiento de unos precios que no reflejan la burbuja del sector, al igual que en otros municipios limítrofes.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Estamos en contra de esta modificación de Normas por varias razones. En función de los tiempos o de los vientos que corren, se cambia la situación de las cosas. Yo voy a ser respetuoso con las reuniones que se hicieron, pero sabemos que la asistencia fue de quince o veinte personas, y que algunas de las personas que asistieron a esas reuniones no son vecinos del barrio, y que la mayoría consideraba no hacer nada y dejarlo como está. Nosotros como no vamos a estar de acuerdo en que hay que fomentar una zona verde, y esas cosas que quedan muy bien sobre el papel, pero hay una realidad y es que no se ve, no es muy apropiado o no ha ocurrido nunca que el Ayuntamiento ponga un dinero para una promoción privada. Tal y como se plantea el asunto, yo creo que es inviable. Se está generando un desconcierto total en los afectados. Yo entiendo que para modificar las Normas hay que tener las cosas muy claras, saber exactamente qué es lo se quiere, consensuarlo y cuando está consensuado llevarlo a un Pleno para que siga adelante. De lo contrario esto está condenado y habrá que dejarlo para otros tiempos. Es cierto que es de las pocas zonas

que quedan en Beasain para desarrollar, pero como partido socialista os pediría un pequeño esfuerzo. Hay que sentarse y llegar a consensos.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Alfonsok esan duenaren harian, ez dakit gune bakarra den herrian eraiki gabe dagoena, ez dut uste, pentsatzen dut gehiago ere egongo direla, baina hemen aipatu da eta garrantzitsua da esatea 2005ean hasitako Arau Subsidiarioak, 2007an onartu zirela, beraz ea zortzi urte badira herriko planteamendu orokorra onartu zenetik. Alfonsok kontsentsua aipatu du eta oso garrantzitsua da. Arau Subsidiario horiek ea aho batez onartu ziren hamazazpitik hamaseiek onartu egin zituzten eta abstentzio bat egon zen. Orduetik hona gauzak asko aldatu dira eta zer esanik ez etxebizitzaren eraikigarritasunari dagokionean. Nik lau gauza azpimarratuko nituzke aldatu diela: egoera ekonomikoa irauli egin da, familiaren egitura aldatu da eta horrekin batera beharrak aldatu dira, baina batez ere aldatu dena izan da, legea. Lege horrek etxebizitza politikari beste buelta bat eman dio. Nik uste dut nahiko arrazoi ba direla arau Subsidiarioak edo Egitasmo Orokorra orain, osotasunean aldatzeko, herriko osotasun horrek emango digulako, eremu ezberdinetan zenbait eraiki behar den, zer eraiki behar den, zein zerbitzu behar diren eta zein zerbitzu falta diren. Orokortasunetik iritsi behar gara jakitea Errekartek aldaketa behar duen ala ez. Ez atzekoz aurrera egin, hau da, eremu bat hartu eta horri irtenbide bat eman. Gero beste eremu batera joago gara eta horri beste irtenbide bat eman. Nik uste dut, orain arrazoi gehiago dagoela Egitasmo Orokorra aldatzeko. Egia da erabilia dauden guneak berrerabili egin behar direla. Lehentasuna horrek behar du eta mendiari gutxiena jan. Nik uste dut lehenbailehen Arau Subsidiarioen edota Egitasmo Orokorraren aldaketaren hasi behar dela politikoen eta herritarren artean lantzeneko, orain arte egin ohi den bezala. Azkeneko bi Arauek hasi zirenetik bi bat urte kostatu da onartzea. Izugarritzko lanketa dakar atzetik, akordioak lortzeko eta onartzeko. Lehen esan dudan bezala, aho batez onartzeak zerbait esan nahi du. Niri iruditzen zait lanketa horretatik hasi behar dela eta horrek esango digula eremu bakoitzean zer eraiki behar den.”

Alkate jaunak (BILDU): “Bilerak irekiak izan ziren, ez ziren auzokoenak soilik izan. Nahi izan zuen guztiak joateko aukera izan zuen. Egia da gehien parte hartu zutenak auzotarrak izan zirela. Hamabost lagun?, bai eta berrogei ere izan ziren bileretan eta aktetan daude. Alfonsok esan duenaren haritik, kontsensu bidez erabakiak hartzea...gu ere erabat ados, irekiak gaude horretara, non, nola edo eraiki behar den edo ez, izan liteke lehenengo galdera. Erabaki horiek kontsensu bidez hartzeko prest gaude. Joango bagina lehenengo puntura, garbi dagoena da, guk prozesu hau ez bagenuen geratu, proiektu honek aurrera egingo zuelako izan zen. Gaur egun nahiz eta ekonomikoki egoera aldatu, baserriak botata egongo ziren eta landa inguru hori eraikita egongo zen edo gutxienez eraikitzen hasita. Ondoren salduta ez dakigu, beste eremu batzuetan ere ikusi dugu eraikitzen hasi direla eta ondoren gelditu egin direla. Nik uste dut, eremu honetan ere berdina pasatuko zela, nahiz eta hori nire iritzia izan.”

Publikoan dagoen pertsona batek esan du, baserri mantentze hori beasaindarra den arkitekto batek eskatutakoa izen zela.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du horri buruzko erantzuna eman zitzaiola, eta legearen arabera, balioztapen arkeologikoa badagoela eremu horretan eta horrek esan nahi duela eraikitzen hasteko ezinbestekoa dela indusketa lanak egitea.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Aurkako botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP).

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa denez, ez da onartu proposamena.

4.- ORDENANTZA FISKALEN ERANSKINAK: 2015erako tarifak onartzea.

Alkate jaunak (BILDU): "Planteatzen duguna da zergei dagokionez, zerga guztietan indarrean dagoen zerga tipoa mantentzea eta hobari hauek onartzea:

- %50eko hobaria zerga kuotan, ibilgailuak kontsumitzen duen karburante mota edo motorraren ezaugarrien arabera, baldin eta horien erabilpena mesedegarria bada ingurugirorako (eskatzailak egoera hau egiaztatuko du modu egokian).
- Lehen daudenaz gain, Udalarentzat interes berezikotzat izendatzea ondorengoak:
 - o 2006-12-29 Aginduaren eta ondorengo aldaketetan (ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO 2013-2016 ALDIRAKO RENOVE PLANA) araututako laguntzak (dirulaguntza edota mailegua) jaso dituzten obra edo jardunak. Hobaria: %95.
 - o Aisiarako gazteen lokaletan egiten dituzten obrak. Hobaria: %95

Tasetan ondorengoa planteatzen dugu:

- Zabor bilketari dagokionez, zergadun guztiei berdina aplikatzea, hain zuzen ere: 80 €.
- Establezimenduak ireki eta jarduera espediente izapidetzagatik: tarifak %50ean jaitea. Egoera ekonomikoa dela eta merkatari eta ostalaritza sektorea sustatu ahal izateko.

- Obra-baimenak. Orain arte finko batzuk kobratzen ziren eta gure ustetan ez du horrela izan behar. Planteatzen duguna da, Udalak tramitatzeagatik duen kostura egokitzea. Horretarako, lehendabizi kopuru finko bat aurreikusten da eta ondoren bariabile bat non aurrekontu edo metro karratuaren arabera igoko litzatekeena.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik eskatuko nuke, ibilgailuen erregaiak direla eta zehazki jartzea gasolio eta gasolinakoak ez direla onartuko. Batzordeko informazio iritsi zitzaianean, puntu hori zehaztu gabe zegoen. Gaur egun ingurugiroaren aurka inor ez dago eta kotxe denak dira ekologikoak. Baina onartu beharko lirateke olio begetala erabiltzen dutenek, elektrikoak etab.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Hori jartzen du, *karburante mota edo motorraren ezaugarrien arabera*. Zehazteko eskatzen baduzue, jarriko dugu, baina...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Batez ere gaur denak direlako ekologikoak”.

Alkatea jaunak (BILDU): “Inoiz ez dugu esan ekologikoa izan behar duenik, baizik eta egiten duten kaltea jaisten dutenak, baina ordenantzan aipatuko da, gasolioa eta gasolina ez dutela balio.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ados”.

Alkatea jaunak (BILDU): “Zaborrena alde batera utzita, beste tasa guztiak batera bozkatuko ditugu.”

Aldeko botoak: 15 (BILDU; EAJ, H1, PP, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (PSE-EE/PSOE).

Beraz, gehiengo absolutuarekin tasak onartu dira, zaborraren tasa izan ezik.

ZABOR-TASA:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “En las tasas de basuras hay un acuerdo con el PNV, pero quisiera decir que no estamos de acuerdo en que se ponga precio para todos. Es cierto que tampoco es muy correcto, y no nos gusta el incentivar por algo que es una obligación cívica, pero es cierto que no se cumple. Por lo tanto nos parece bien que seamos más pesados diciendo

una y otra vez para que los ciudadanos cumplan sus obligaciones porque además son medidas que van a beneficiar a todos, pero vamos a apoyar esa discriminación que a quien cumpla se le incentive y a quien no cumpla se le grave.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk egin nahi dugun proposamena da, zabor tasei, Sasieta Mankomunitateak herri guztiei aholkatu dien bezala, %10eko igoera tasan aurreikustea, hau da, orain 100 €tan dago tasa eta 110 € izatea eta orain arte bezala bosgarren edukinontzia erabiltzen dutenentzat, tasa 80 €tan finkatzea. Hauek %27,7ko hobaria izango lukete.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Momentu honetan ez dago hobaririk. Berziklatzen dutenek 80 € ordaintzen dute eta besteek 100 €.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bale ba orduan, bosgarren edukinontzia erabiltzen duenak 80 € ordainduko lituzke eta besteak 110 €.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Nik azaldu nahi nuke gure proposamenaren zergatia. Alfonso eta Aitor-en interbentzioa entzun dudanean izan dudan sentrazioa izan da, ahaztu egin dugula bere garaian zertarako jarri genituen bi tasa. Dakizuen bezala 2016. urtean %60a iritsi beharrean gaude eta helburu horrekin talde politiko ezberdinak bildu ginen eta pausoak ematen hasi behar genuela adostu genuen. Gure taldearen zalantzekin, onartu genuen tasaren bereizketa martxan jartzea, pentsatzen genuelako gai honek nahiko gerra politikoa eman duela eta guk Beasainen ez genuela horrelakorik nahi eta gaia adostasun bidez atera nahi genuela. Sei hilabete pasa eta ebaluaketa egin ondoren, ikusten dugu hasitako toki berdinean gaudela. Hobari sistema honek ez du ezertarako balio izan. Datuak behintzat horrela diote. Abenduan %43an geunden, abuztuan %40an eta urteko batz bestea %46a da. Ez du inondik inora behar duen helburua gauzatu. Ikusita 2016. urtea ate joka dagoela eta talde politiko guztiak onartua dugunez urte horretarako birziklapen-tasa %60a izan behar dela, gure taldean egin dugun hausnarketa da hobari-sistema honekin inora ez goazela. 2015. urtea galduko du eta ez gara iritsiko lortu nahi dugun portzentaia horretara. Horregatik hobari-sistema uztea proposatzen dugu, tasa bakarri ezarri eta bihartik aurrea lanean jarri talde politiko nahiz Sasietako teknikariak, dagoen bilketa-sistema mantenduz ea nola eman dezakegun aurrera pausoa. Gaur egun gure ustez, dena inbentatuta dago. Or daude, Ataun, Ormaiztegi... Zegama eta Olaberrian orain jarriko dute bosgarren edukinontzia moldatuta. Beasainen ere aukera badaude pausoak emateko eta datuetan gora egiteko. Borondate gaia da.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Yo siempre que haya rebaja estaré de acuerdo, pero no estoy de acuerdo con que se aumente.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Tasak kostuari erantzun behar omen dio, hau da, kostatzen zaizuna baino gehiago ezin da kobratu. Saiakera egin behar

da ahal den gehiena doitzeko. Beasaindar-on kostua zaborrena famili bakoitzeko, 140 € da. Beraz, nonbaitetik atera behar da diru hori. Aipatzen da 2016an %60ra iritsi behar dela, baina nik esango nuke, %70 edo %80a. Helburu batzuk baino intentzio batzuk jartzen dira. Proposatzen dena pauso bat gehiago da eta behartze horretara iristeko, pertsonengan sinistu behar da eta indar guztia jarri behar da jende hori sentibilizatzeko, jakinda sistemak bere mugak dituela, baina etxeetako ohituretan duen eraginarekin, niri sei hilabete oso denbora eskasa iruditzen zait, bertan behera uzteko eta esatek, sistema honek ez duela ezertarako balio. Itsasondon sistemaren aldaketa eta hobekuntza lortu zen eta kopuruak asko jokatzen du horretan. Herri txikietan errazagoa da beste sistema batzuk ezartzea eta jendearen kontzientzian eragitea. Zailagoa da zenbait eta handiagotan baliagarriak izatea hainbat sistema. Aurreko legegintzaldian adostu zen helburu bezala eta lurralde osorako, 2016rako %60a, jakinaren gainean egonda, Irun, Errenteria, Donostia, hau da Donostialdeak duela zabor kopuru gehiena. Hor ematen ez bada pauso nabarmenik, beste guztiak egiten duguna, ez dugu horrelako eraginik izango, nahiz eta garrantzizkoa izan guk gure bidea egitea. Beasainen, irailean eman den datua %47a. Kopuru horretan zabor industrialak (%10, %13) ere sartzen da eta hemen ez da aintzakotzat hartzen. Hori kontutan izanda, %57an jarriko litzateke portzentaia. Hala ere, ni ez naiz gustura geratzen %60 horrekin, aurrera pausoak eman behar dira. Guk proposatzen dugunarekin aurrera pauso bat izango da eta ikusiko da denbora pasatzen denean, helburua bete duen. Orduan hitz egin beharko dugu jakiteko hurrengo pausoa zein izan behar den. “

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guk ez dugu gai honekin polemikarik egin nahi. Batzordeetan hitz egiten jarraituko dugu, baina garbi utzita gure ustez pauso bat derrigorrez eman behar dugula. Gure ustez, zuen proposamenarekin urte bete galtzen dugu.”

Malu Vallés (EAJ): “Yo tenía una cuestión para el Sr. Alcalde. En la comisión de Hacienda hubo una propuesta que no se ha trasladado al Pleno y que no aparece en la documentación y que entiendo que ha sido retirada por parte del equipo de gobierno, pero no se nos ha comunicado su eliminación. Me refiero a la propuesta que hacíamos en relación a las viviendas de protección oficial.”

Alkate jaunak (BILDU): “No se ha incorporado porque esa bonificación desde el punto de vista legal no es procedente.”

Malu Vallés (EAJ): “Para nosotros es una sorpresa porque se discute en comisión y luego no se nos traslada que esa propuesta que viene del equipo de gobierno y que supone estaba discutida con los técnicos, se retire.”

Alkate jaunak (BILDU): “Batzordean esan bezala, hori Tolosatik hartutako eredia zen eta leku guztietan agian gauzak ez daude legearekiko doituak. Esan genizuen bezala batzordean, dokumentazioa azken momentuan

erantsitakoa izan zen eta astean zehar esan zitzaizuen zuek ere zerbait gehitzeko, kentzeko, aldatzeko eta horixe izan zen batzordeetan aipatutakoa, buelta gehiegi eman gabe.”

Publikoan dagoen pertsona batek adierazi du ez dagoela prest beste batzuen ordaintzeko are gehiago beraiek etxean konpostatu egiten duenean. Adibide modura esan du, aldamenekoei argia ordaintzea bezala dela.

Alkate jaunak (BILDU): “Zaborren inguruan ajustea egin behar dira eta autokonpostajea egitea bultzatu behar da. Egia da denik egingo bagenu edukinontzi bat gutxiago izango genuela, trafiko ikuspuntutik begiratuta eta Sasiarentzat gastu gutxiago. Hori apuntatzen dugu. Ez dago aurreikusita eta hobaritzearen alde egongo ginatke. Hala ere gaur egun ematen den kasuistika da, oso toki gutxietan ezarrita dagoela. Zaldizurretako bizilagunekin esperientzi bat izan dugu. Orain dela gutxi bukatu zen ontziek lurra ateratzea eta oso egokia eta bizilagunek ere gustura hartu zuten gauza bat izan zen. Gure asmoa da herri guztian zabaltzea, ahalik eta leku gehienetan.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Hazienda batzordeak egindako proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (BILDU, PP, ARALAR).
Aurkako botoak: 9 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1).
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz ez da onartu aldeko botoen kopurua aurkakoa baino txikiagoa delako.

Jarraian, EAJk proposatutakoa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1).
Aurkako botoak: 8 (BILDU, PP, ARALAR).
Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin erabaki da: bertziklatzen ez dutenentzat tasa, %10a igotzea eta bertziklatzen dutenentzat, orain dagoen bezala mantentzea.

5.- KREDITU ALDAKETAK (gehigarriak) eta **FINANTZA IRAUNKORTASUNA EBALUATZEKO TXOSTENA**

Alkate jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

Aurrekontuko	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos
--------------	-----------------------	----------------------

kontu saila/ Partida Presupuestaria				
		Egungoak Actuales	Aldaketa/ Modific.	Behin betikoak / Definitivos
1.1000.161.611.10.03	Erretiro aurreratua kalteord./ Indemnización jubilación anticipada	0,00	19.190,00	19.190,00
1.9000.210.449.10.02	Instalazioen iraupena: Zerbitzuak / Mantenimiento instalac. Servicios	20.000,00	10.600,00	30.600,00
1.9000.213.449.10.01	Ibilgailuen mantenim.: Zerbitzuak / Mantenimiento vehículo: Servicios	4.000,00	4.771,00	8.771,00
1.9000.211.451.21.01	Eraikinen iraupena: Urbietan / Mantenimiento edificios: Urbietan	10.000,00	4.000,00	14.000,00
1.8000.601.441.10.01	S. Gregorio eta Erromategira ur hornidura/ Sum. agua S. Gregorio y	5.000,00	4.000,00	9.000,00
1.1000.625.122.00.02	Errom.	0,00	1.775,00	1.775,00
1.9000.601.434.10.01	Bake epaitegia: skannerra/ Juzgado de paz: scanner	15.000,00	5.374,00	20.374,00
1.9000.622.456.10.01	Skate parkea / Parque skate	0,00	3.194,00	3.194,00
1.5000.601.434.10.01	Eraikinak: Telotxe ludotekako leihoak / Edif.: Ventanas ludoteca Txelotxe	162.200,00	60.000,00	222.200,00
1.1000.733.452.20.01	Azp. eta urb.: Barandiaran parkea / Inf. y urb.: Parque Barandiarán	0,00	44.500,00	44.500,00
	Beasain Lantzen,S.A.:Igerilekuak zelaia / Beasain Lantzen,S.A.: césped pisc			
GUZTIRA / TOTAL		216.200,00	157.404,00	373.604,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
1.9000.601.511.10.01	Kale asfaltaketa / Asfaltado de viales	15.168,00
1.9000.682.313.80.01	Oriako pas. 14-1C etxea egok/ Reforma viv. Oriako pas. 14-1C	4.771,00
1.8000.643.521.10.01	Matxim. Astig Garín internet / Mejora internet Matxim. Astig. G	12.000,00
870.01	Kreditu geh. Fin. Diruz. Gerak/ Remanente tesorería Ctos. Adic	125.465,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		157.404,00

Aldi berean, Kontuhartzaileak 2014ko urriaren 10ean emandako, finantza iraunkortasuna ebaluatzeko txostenaren berri eman da:

“GAIA.- *Finantza Iraunkortasuna Ebaluatzeko Txostenaren Komunikazioa Udalbatzarrari.*

AURREKARIAK

1.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, "2014rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea" onartu du. Araudi honen 1 eta 3 erregeletan xedatzen denez, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helarazi beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betetz, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.-2014 ekitaldirako hasierako aurrekontua aurrekontuaren egonkortasun eta finantzen iraunkortasunaren helburuak betaz onartu zen baina gastu arauaren helburuak urratuz onartua izan zen.

Helburuaren urraketaren ondorioz, aipatutako 2014 urterako Jarraibideetan" xedatutakoaren arabera, Udalbatzari, Kontuhartzaileak sinatutako txostenaren berri eman baitzitzaien, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuz, ondorengo baldintza guztiak betetzen direnez:

- 2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

2.- 2013ko aurrekontuaren likidazioaren espedienteak aurrekontuaren egonkortasuna, finantzen iraunkortasuna eta gastu ez finantzarioaren muga helburuak betetzen ditu. Likidazio horretatik 6.782.270,10 euroko kopuruko diruzaintzako gerakin likidazioa ondorioztatzen da.

3.- Azken Udalbatzan aurkeztutako txostenaren ondoren, 169.604 euroko guztizko kreditu gehigarrien 2 espediente formalizatu dira (Pleno honen onespenerako aurkezten denaren barne), beste kreditu batzuen bajaz gain, 125.465,00 euroko diruzaintzako gerakin likidazioarekin finantzatuak izan direnak.

Kreditu gehikuntza horien ondorioz aurrekontu egonkortasunaren eta gastu mugaren helburuak urratuta gertatu dira, baina diruzaintzako gerakinaren erabilpenaren ondoriozko urraketa denez, ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzarioa egitea, aipatutako Jarraibidearen 1 eta 3 erregelak xedatutakoaren babespean, entitatearen

finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko duen Kontuhartzaitzako txostenarekin ordezkatzeko baita.

4.- Aipatutako kredituetatik 150.233,00 gastu ez errepikariak dira eta gastu arruntaren gehikuntza nabarmenik ondorioztatuko ez dutenak ere, eta beraz, Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen ez dutenak.

5.- Aipatutako kreditu aldaketak barne hartzen dituen aurrekontu **bateratuaren Aurrezki garbia**, positiboa da **2.243.725,64 euroko** kopuruan. (Sarrera arruntak: 14.969.526,09€, Gastu arruntak: 12.205.800,45€, zorraren amortizazio: 520.000,00€).

Beraz, txosten honek ondorengo adierazten du, alegia, egindako kreditu aldaketen ondorioz AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA ETA GASTU MUGA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketen ondorioz ez dela konprometituta gertatzen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 10. Kreditu gehikuntzen bidez 157.404,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

Bigarren. Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

6.- INSTALAKUNTZA, ERAIKUNTZA ETA OBREN GAINEN ZERGAN HOBARIA: Pentecostal elim. Elizaren alde.

Alkate jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

“**GAIA:** IGLESIA PENTECOSTAL ELIM elkarteak Gudugarreta Auzoa, 16an, pabiloi bat erlijio zentrorako moldatzeko, eskatutako lizentziaren ondorioz sortutako Eraikuntza Zergari buruzko hobari eskaria.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

IGLESIA PENTECOSTAL ELIM elkarteak Gudugarreta Auzoa, 16an, pabiloi bat erlijio zentrorako moldatzeko, eskatutako lizentziaren ondorioz sortutako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

7.- GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO EGITARAUA:
Beasaingo Udala eta organismo autonomoentzat.

Alkatea jaunak (BILDU), Antolakuntza Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1º. Zerbitzu Batzordeak, 2011-05-04ko datadun akordio bidez, Antolakuntza Batzordera eramaten ditu ondorengo proposamenak:

- Kale garbiketako Zerbitzuaren Arduradunaren postua ezabatzea.
- Zeregin anitzeko Langilearen monografia onartzea.

2º. Antolakuntza Batzordeak 2012-07-09an , besteak beste ondorengo proposamenak onartu zituen:

- Kale garbiketa zerbitzuaren Arduradunaren lanpostua ezabatzea eta bere ordeztan Zeregin anitzeko langilea izeneko postua sortzearen proposamena aztertzea.

3º. Kirolaren Udal Erakundeko Monitore harreragilearen lanpostuaren zereginak aldatzea, mantentze langilearen zereginak egitera pasaz.

4º. Aurretiazko borondatezko jubilazioa eskatuz langile baten eskaera.

Beraz, eta ulertzen denez legedira doitzen dela; Udal Antolakuntza Batzordeak Beasaingo Udaleko eskumeneko organoari eramaten dio bere onarpenerako ondorengo:

AKORDIO PROPOSAMENA

Beasaingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako Giza Baliabideen Arrazionalizazio Programa onartzea, proposamen honekin batera doana dagozkion eranskinekin eta Programan aipatzen diren eta ondoren aipatzen diren puntuekin:

- a) *Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendan gaur egun dauden Zerbitzuen Arduradun eta Gizarte Dinamizatzaile postuen titularren berresleipena egitea, berriak diren Zeregin anitzeko Langilea eta Gizarte Langile/Gizarte Dinamizatzaile postura pasatuz.*
- b) *Kirolaren Udal Erakundearen Lanpostuen Zerrendan gaur egun Monitore Harreragilearen titularren berresleipena egitea, berria den Mantentze langile postura pasatuz.*
- c) *Lan baldintzak jasotzen dituen lan hitzarmenari jarraiki (UDALHITZ), eta plantilaren neurriraketa eta gaztetea egiteko helburuarekin, aurrejubilazio edo zerbitzu aktiboari errenuntzia egiteagatiko primak ezartzen dira.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. *Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoetako giza baliabideak arrazionalizatzeko ondorengo programari hasierako onespena ematea.*

Bigarren. *Hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea eta afektatuei banakako jakinarazpenak egitea, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako alegaziorik aurkezten aipatutako programa behin betiko onartua geratuko da.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da ondorengo giza baliabideak arrazionalizatzeko programari hasierako onespena ematea eta hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea nahiz afektatuei banakako jakinarazpena egitea, adieraziz epe horretan alegazioak aurkezten ez badira, behin betiko onartuko dela:

BEASAINGO UDALAREN GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PROGRAMA.

MEMORIA

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak, zerbitzuak ematerakoan eraginkortasuna lortzea eta dituen baliabide ekonomikoen erabilera eraginkorra lortzea du helburu, eta diru-baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, eta hori, efektiboen neurriraketa egokiaren bidez, banaketa hobearekin, formakuntza, lanbide-promozioa eta mugikortasuna baliatuz.

Xede horrekin, Administrazio Publikoek bere giza baliabideen antolamendurako Plangintzak onartu ahal izango dituzte.

Gure autonomi-legeriari dagokionez, 6/1989 Funtzio Publikoaren Legeko 22. artikulua ezartzen du, Euskal Administrazio Publikoek, beren autoantolamendugaitasunaren arabera eta langileriaren ordezkariarekin negoziatuz, bertako berezitasunei egokitutako giza baliabideen arrazionalizazio programak ezar ditzaketela, bai funtzionarioei eta bai laboralei dagokienez; eta beren baitan bilduko dituztela eragiten duten eremuko gizabaliabideen erabilera egokiena garatzeko aktuzioak, aurrekontuen mugen baitan eta gobernu-organismoek ezarritako pertsonal-politikaren gidalerroen arabera. Eta eransten du, giza baliabideen arrazionalizazio-programek beren baitan har ditzaketela enplegu-planetarako aplikagarri diren araubide orokorrean ezarritako neurrietakoren bat edo denak, eta baita borondatezko eszedentziarentzako eta jubilazio aurreratuentzako zein zerbitzu aktiboari uko egiteagatik edo behin betiko bajagatiko pizgarriak.

Plan horiek 22/1993 legean daude araututa (neurri fiskalak, funtzio publikoaren erregimen juridikoaren erreforma eta langabeziagatiko babesa), non ezartzen den Administrazio Publikoek Enplegu Programak egin ahal izango dituztela, bai funtzionarioei eta bai laboralei dagokienez; eta beren baitan bilduko dituztela eragiten duten eremuko gizabaliabideen erabilera egokiena garatzeko aktuzioak, aurrekontuen mugen baitan eta gobernu-organismoek ezarritako pertsonal-politikaren gidalerroen arabera. Arau honetan oinarrituta, Enplegu Planek besteak beste honako neurriak jaso ditzakete: Antolamendu egituren eta lanpostuen aldaketei buruzko aurreikuspenak, langileen erreasignazioak eta Enplegu Planaren helburuekin zerikusiarri lotutako beste neurri batzuk.

Enplegu Planen memoria justifikatzaileek, beren baitan, aurreikuspenei buruzko eta ezarritako neurriei buruzko erreferentziak bilduko dituzte.

Giza Baliabideen Arrazionalizazio Programan sar daitezken neurri zehatzei dagokienez, Euskal Administrazio Publikoen funtzionarien lanpostuak betetzeko Erregelamendua onartzen duen 190/2004 Dekretuak ezartzen du, Euskal Administrazio Publikoek autoantolamendurako duten eskumena erabiliz eta langileen ordezkariarekin negoziatuz, berezitasunei egokitutako giza baliabideen arrazionalizazio-programak egin ahal izango dituzte, bai funtzionarioei eta bai laboralei dagokienez. Programa horiek batera bildu beharko dituzte eragindako eremuan giza baliabideen optimizaziorako garatu beharreko aktuzioak, eta arau horretako 42. artikulua biltzen ditu jaso daitezkeen neurriok.

II

PROGRAMA

Beasaingo Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa.

Lehenengoa. Helburua.

Giza Baliabideen inguruko programa honetan zenbait neurri hartzen dira Beasaingo Udaleko eta bere Erakunde autonomoetako giza baliabideak ahalik eta egokien erabiltzeko, kontuan hartuta, dena den, aurrekontuko mugak eta pertsonalaren politikari buruz planak berak ezartzen dituen irizpideak.

Bigarrena. Aplikazio Eremua.

Programa hau, Beasaingo Udaleko eta bere Erakunde Autonomoetako langile orori izango zaio aplikagarri.

Hirugarrena. Helburuak.

- 1. Lanpostuen Zerrenda, eskaini beharreko zerbitzu publikora egokitzea, konkretuki, Zerbitzu Sailean, Gizarte Ongizatean eta Antzizar Kiroldegian.*
- 2. Jubilazio aurreratuentzako zein zerbitzu aktiboari uko egiteagatik edo behin betiko bajagatiko pizgarriak adostea.*

III

BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEA

Lehena: Kideak berresleitzea.-

1.1 KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN ARDURADUNA.-

2011ko maiatzaren 13ko UdalBatza Osoan esleitutako "kale garbiketa zerbitzuaren" kontratuan ezarritako baldintzak direla eta, kale garbiketa zerbitzuaren Arduradunaren lanpostua eduki aldetik ia hutsik geratu zen eta orduz geroztik Lizeo Alkartasunean mantentze eta zaintze lanak egiten ari da

Dagokion azterketa egin eta gero, ondorio batetara iristen da: kale garbiketa zerbitzua kanpoko enpresak eta oraingo baldintzetan egiten duen bitartean, Kale garbiketa Zerbitzuaren Arduradunaren postua kendu egin behar dela eta lanpostu berri bat sortu, ordainsari berdinekin eta ahal izanez gero, antzeko ezaugarriekin.

Beraz, Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendan lanpostu berri bat sortu beharko da: Zerbitzu Sailera atxikita dagoen Zeregin anitzetako Langilea, bere erantzukizun eta zereginak Enplegu Plan honi erantsita doazen monografian jasota daude, I Eranskin bezala.

Langileak berresleitzearen bidez, Kale garbiketako Arduradunak (non postua ezabatu egiten da edo edukia eta izena aldatzen zaizkio) postu berri hau hartuko du eta kale garbiketaren zerbitzuaren Arduradunaren plazari atxikita egongo da.

Neurri hauek indarrean egongo dira esleitutako enpresarekin kontratuko egoerak irauten duen bitartean, beraz, kontratua iraungitzen denean, Lanpostuen Zerrendan aurreko egoerara itzuliko da, aurretik dauden izapide edo/eta akordioak kontuan hartuz.

1.2. GIZARTE DINAMIZATZAILEA.- Denborak aurrera egin ahala, Gizarte Dinamizatzaile postura atxikita dagoen langileak pixkanaka bere gain hartzen ari da beste zeregin batzuk, kontua da , gaur egun garrantzi handiagoa dutela Gizarte Langilearen zereginak Gizarte Dinamizatzailearen perfilean eskatzen direnak baino; beraz, eta gaia aztertuta, monografia berria egin behar dela ondorioztatzen da, dokumentu honi erantsita doa II Eranskina bezala; bertan, lanpostu honen gaur egungo egoera eta zereginekin bat etorriz, bere izena aldatuko zaio, Gizarte Dinamizatzaile izatetik Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaile izatera pasaz. Hala ere, plaza Gizarte Dinamizatzailea izaten jarraituko du.

Lanpostuaren betebeharreko baldintzak eta balorazioa berdina da, beraz, Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendan egingo da dagokion aldaketa, Gizarte Dinamizatzaile izeneko postua ezabatuz eta ezaugarri berdinak dituen beste bat sortuz baino Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaile izenarekin eta Gizarte Langilearen titulazioa izan beharreko baldintzarekin.

Langileen berresleitzearekin, Gizarte-Dinamizatzaileak (non bere postua ezabatu da edo edukia eta izena aldatu zaizkio) postu berri hau hartuko du.

1.3. BEASAINGO KIROLAREN FUNDAZIO PUBLIKOAREN MONITORE-HARRERAGILEA.-

Antzizar Udal Kiroldegiaren kudeaketa MASQUATRO enpresari esleitzean, eta kontratazio honetan onartutako pleguetan ezarritakoarekin bat etorriz, gai honen inguruko atalak ondoren aipatzen dira:

“zerbitzura atxikitako udal langileak organikoki Beasaingo Kiroloren Udal erakundearen menpe egongo da, eta beraz, bere plantilakoa izaten jarraituko du.

- Hala ere, menpekotasun funtzionala esleipendunarena izango da, Langileen Plantilan ezarrita dagoen pertsonal guztiaren zuzendaritza teknikoaren boterea izango du, atxikitako udal langileak ere.

Antzizar Kiroldegiko Erakunde Autonomokoa den pertsonala eta zerbitzura atxikita dagoena, plegu honetako I Eranskinean dago zerrendatua”

Besteak beste, Monitore-Harreragile postua hau, aipaturiko I Eranskinean azaltzen denez; berregituraketa bat dela medio, ukituta geratzen da, eta bertara atxikita dagoen langileak Antzizar Kirol Erakundearen Mantentze Langilearen zereginak eta funtzioak egitera pasatzen da.

Beraz, Mantentze Langilearen izenarekin lanpostu honen monografia bat egin da, III Eranskin bezala doana dokumentu honekin batera, gaur egungo errealitatea jasotzen duena eta interesa izan duten alde guztiekin adostu dena, hau da, eragindako langilea, Kirolaren Udal Erakundeko Zuzendaria, hau ere, udal langilea dena eta aipatutako I Eranskinean azaltzen ez dena, Kiroldegiko jarduera kudeatzen duen MASQUATRO izeneko enpresaren ordezkaria eta Kirolaren Udal Erakundeko Zuzendaritza politikoa.

Aldaketa hau Beasaingo Kirolaren Udal Erakundeko Lanpostuen Zerrendan islatuko da; horretarako Monitore-Harreragile postua ezabatuko da eta Mantentze Langilea izeneko postu berria sortuko da.

Postu honen ordainsarien inguruan, gaur egungoak izaten jarraituko da lanpostuaren balorazioa egiten ez den bitartean.

Langileen berresleipen bat dela medio, postua ezabatu zaion Monitore-Harreragileak, postu berria hartuko du. Hala ere, Beasaingo Kirolaren Udal Erakundeko Pertsonalaren Plantilan, plazak Monitore-Harreragilea izaten jarraituko du.

Aipatutako langileen erreassignazio 3 ekintza hauek, 2015. Ekitaldirako onartuko diren Lanpostuen Zerrendan gauzatuko dira eta 22/1993 Legean sortutako figura juridikoan gauzatzen dira, bere lanpostua ezabatzeak eragindako pertsonak birkokatzeke sortua, pareko ezaugarriak dituen lanpostu batean.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 54.bis artikulua jasotzen du langileen erreassignazioa, 190/2004 Dekretuaren 44. artikulua gehiago garatzen duena.

Artikulu horrek ezartzen du giza-baliabideen arrazionalizazio-programen aplikazioa, ezabatu den lanpostuko langilea erreassignazio bidez beste lanpostu batetara destinatua izan daitekeela. Erreassignazioa, gaitasunekin, formakuntzarekin, esperientziarekin eta antzinatekin lotutako irizpide objetiboen arabera egingo da. Erreassignazioz emandako lanpostuak behin betiko izaera izango du.

JUBILAZIORAKO PIZGARRIAK

Giza baliabideak arrazionalizatzeko Programa baten barruan sar daitezkeen neurri desberdinen artean, aurrejubilazioa eta zerbitzu aktiboari errenuntzia edo behin betiko baja egiteagatiko pizgarriak daude.

Aipatutako pizgarri hauekin Administrazioaren borondatea da, gaur egun duen plantillaren neurriraketa eta gaztetzea. Modu honetara, bere jubilazioa borondatez aurreratzeko indarrean dagoen legediak ezarrita dituen baldintzak betetzen dituen langilearentzat erakargarria izango da eta jubilazioa aurreratuko ez balu jasoko lukeen pentsioaren kopuruan izandako murrizketa arinduko luke zati batean eta bestalde, Erakundeari lagunduko lioke plantillaren neurriraketa eta gaztetzea egiten.

Giza Baliabideen gaztetzeaz gain, logikoa da absentismoan ere murrizketa bat egitea eta noski, antzinasun kontzeptuan ordainsarien jaitsiera bat.

Beraz, langile baten aurretiazko jubilazioaren ondorioz lanpostu bat hutsik geratuko balitz, Administrazioak une horretan dituen beharren inguruan erreflexio bat egingo du baliabideak optimizatzeko eta honen emaitza izan daiteke aipatutako plaza hutsa hornitzea edo amortizatzea, ondorio horretara iritsiko balitz.

Erabakiko balitz plaza hornitu egin behar dela, hauketaketa modua aukeratzekoan ondorengo ordena jarraituko da:

- a) Langileak berresleitzea.
- b) Barne promozioa.
- c) Txanda irekiko Oposizioa edo Oposizio-Lehiaketa.

V.

GIZA BALIABIDEAK AHALIK ETA EGOKIEN ERABILTZEKO NEURRI ETA AURRIKUSPENAK.

1. LANPOSTUEN ZERRENDIA.- Baliabideen arrazionalizazio Plan honetan proposatutako neurriak bere islada dute giza baliabideen ordenazio tresnan eta hain zuzen ere Lanpostuen Zerrendan.

Horrela, Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendan ondorengo aldaketak islatuko dira: Gizarte Dinamizatzaile postua GIZARTE LANGILEA-GIZARTE DINAMIZATZAILEA izatera pasako da eta Kale Garbiketako Zerbitzuaren Arduraduna ezabatzen da eta beste bat sortuko da ZEREGIN ANITZEKO LANGILEA.

Izena / Denominación	Postu kopurua / N ^o Puestos	Erlazioa / Relación	Taldea / Grupo	Destinu Osagarriaren Maila / C.D.	Noren menpe / Dependencia	Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico	Derrigortasun data / Fecha Preceptividad	Titulazioa / Titulación
Zeregin anitzeko langilea / Operario de cometidos múltiples	1	L	C2	15	Zerbitzuak / Servicios	2	Beteta / Vencida	Oinarrizko batxilerra edo baliokidea / Bachiller elemental o similar
Gizarte Langilea- Gizarte Dinamizatzailea / Trabajadora Social- Dinamizadora Social	1	F	A2	19	Gizarte Ongizatea / B.Social	3	Beteta / Vencida	Gizarte Langilea / Trabajadora Social

Beasaingo Kirolaren Udal erakundearen, Monitore-Harreragile postua ezabatu egiten da eta beste bat sortzen da Mantentze langilearena.

Izena / Denominación	Postu Kop. / N ^o Puestos	Erlazioa / Relación	Taldea / Grupo	Destinu Osagarriaren Maila / C.D	Noren menpe / Dependencia	Hizkuntza Eskakizuna / Perfil lingüístico	Derrigortasun data / Fecha Preceptividad	Titulazioa / Titulación
Mantentze langilea / Operario de Mantenimiento	1	L	E	17	Manten.	3	Beteta / Vencida	Eskolaritate Ziurtagiria / Certificado de escolaridad

2. AURREJUBILAZIO EDO ZERBITZU AKTIBOARI ERRENUNTZIA EGITEAGATIKO PRIMAK.

Gure lan baldintzak jasotzen dituen lan hitzarmenari jarraiki, plantillaren neurriraketa eta gaztetzea helburutzat duen giza baliabideak arrazionalizatzeko programa baten esparruan, aurrejubilazio edo zerbitzu aktiboari errenuntzia egiteagatiko prima ezartzen da. Primaren kopurua, aurrejubilazio edo errenuntzia hori ematen deneko adinaren arabera ezarriko da.

Prima horiek eskuratzeko betebeharrak:

- *Beasaingo Udalean edo bere Erakunde Autonomoren batean langile gisa gutxienez 10 urteko aintzinasuna izatea beharrezkoa izango da prima eskuratu ahal izateko.*

Behin aurrejubilatu edo zerbitzu aktiboari errenuntzia egin ondoren, sektore publikoan ordainsarituriko jarduerarik ez egitea. Eskaerarekin batera, hau onartzen denetik aurrera ordainsarituriko edozein jarduerari idatzizko ukoa aurkeztu beharko da.

<i>Adina / Edad</i>	<i>Hilabete kopurua / Nº de mensualidades</i>
60tik 61 urtera / 60 a 61 años	21
61 etik 62ra / 61 a 62	17
62 etik 63ra / 62 a 63	12
63 etik 64ra / 63 a 64	9
64 etik 65ra / 64 a 65	6

Hilabete baten balioztat hartuko da eragina duen langilearen urteko ordainsari finkoaren 1/14ren baliokidea.

Aipatutako prima hau, oraindik jaso gabe dagoen 2012. Ekitaldiari dagokion ordainsariarekin igo egingo da, aipatutako kopuruan 2012-12-20ko Udalbatzan onartutako ibilgetutako kreditua murriztu egingo delarik, ulertzen baita jubilazioen kasuetan, ibilgetutako kopuruarentzat aurreikusitako helburua legalki betetzen dela, aurrejubilaziorako pizgarria sustatuz aldi berean.

3. IRAUPENALDIA.-

Giza Baliabideak arrazionalizatzeko Plan honen iraupenaldia izango da, behin betiko onartzen denetik, langileen berresleipen arloan aipatutako planean jasotzen diren neurriak Lanpostuen Zerrendan gauzatu arte; eta aurrejubilazioa sustatzeko aipamena egiten duen Planaren atala indarrean egongo da bere aldaketa edo indargabetzea eman arte.”

8.- BAREMOA. Udal kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifetan eta udal tasetan dirulaguntzak ematea.

Alkatea jaunak (BILDU), Gizarte-Ongizate Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-Ongizate batzordeak 2014ko urriaren 2an egindako bileran, honakoa proposatu du:

- 2014. urtean ur eta zabor kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko kontutan hartuko diren diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea:

Hileko 645,30euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

Hileko 645,31eurotik 967,95 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.

Hileko 967,96 eurotik 1.290,60 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.

Laguntza eskatutako tasei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako diru-sarrerak zenbatuko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

9.- ORDENANTZAREN ALDAKETA: Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenagatiko tarifak eta udal tasen arloan laguntzak emateko ordenantzaren aldaketari hasierako onspena ematea.

Aipatutako ordenantzaren berri eman da, hau da:

**“UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILPENARENGATIKO TARIFA
ETA TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA.**

1.-AURREKARIAK

2010eko irailaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko Ordenantza argitaratu zen.

Hala ere, zaborren birziklapen sistema bultzatzea eta kiroldegiaren tarifen arloan dagoen laguntza sistema hobetu nahi izateak, ordenantza horretan jasota dauden diru-laguntzak emateko irizpideak aldatzeko beharra sortu du.

Ordenantza berri hori, ondorengo edukiarekin egituratuta gelditzen da:

I. Kapituluak: Xedapen Orokorrak.

II. Funtzionamendu-arauak.

Xedapen Gehigarria

Xedapen Indargabetzailea.

Azken Xedapena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da:

- *Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.*
- *Udal Kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatiko tarifen ordainketa.*

2. artikulua. Ezarpen-esparrua.

Ordenantza hau, Beasaingo Udalerrian eskaera egin baino 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egonik, laguntzak emateko baldintzak betetzen dituzten pertsonen aplikatuko zaie.

II KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

3. artikulua. Tasa arloan laguntzak jasotzeko.

Eskatzailea den pertsonak eskaeran azaltzen den helbidean erroldatuta egon eta bizi behar du.

Zabor tasaren arloan laguntza eskatzeko materia organikoa birziklatu behar da; 2016. urtetik aurrera (2015eko tasentzako laguntzak eskatzen den urtea) zabor tasaren arloan laguntzarik ez da onartuko baldintza hori betetzen ez bada.

Eskaera etxebizitza bakarrarekiko egin daiteke.

Laguntzak gauzatzeko, ura eta zabor-tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Laguntza ura eta zabor-tasen zenbatekoaren %100era iritsi daiteke.

Balorazio ekonomikoan kontutan edukiko dira etxebizitzan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak (elkarbizitza unitatea).

4. artikulua. Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko tarifen arloan laguntzak jasotzeko.

Balorazio ekonomikoan kontutan edukiko dira pertsona eskatzailearen unitate ekonomiko independentearen diru-sarrerak.

Laguntzak gauzatzeko, Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko tarifen ordainketako (matrikula eta hilekoa) zenbatekoak hartuko dira kontuan. Matrikularen tarifa gehienez urtean behin onartuko da.

Laguntza gehienez ere tarifaren %60ra iritsi daiteke.

5. artikulua. Eskaera egiteko epea

Tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko tarifen arloko laguntza eskaerak urtero martxoaren 1etik 31ra aurkeztu beharko dira.

Ezarritako epez kanpo egindako eskaera oro, baztertua izango da.

2014. urteko Udal kiroldegiaren erabilpenarengatiko tarifen arloko laguntzak aipatutako urtean ebatziak izan ziren, beraz urte horri dagokion tarifen inguruko laguntza eskaerarik ez da onartuko.

Gai honetan udal-laguntza lortzeak ez du esan nahi onuraduna hurrengo ekitaldietarako berriz ere laguntza-eskaera egin behar ez duenik eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu behar ez duenik.

6. artikulua. Diru-sarrerak

Urtero, laguntza hauek jasotzeko diru-sarreren baremoa ezarriko da.

Laguntza eskatutako tasei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako diru-sarrerak zenbatuko dira.

Diru-sarrera izaera izango duten kontzeptuak, ondorengoak izango dira:

a) Lanagatik lortutako hileko diru-sarrera garbiak, pentsioak, prestazioak eta/edo laguntzak.

b) Ondasun higiezinak:

Sortzen dituzten etekin garbiak diru-sarrera gisa hartuko dira: bigarren etxebizitza, aretoak, garajeak, lursailak, etab. Kasu honetan, azken lau urteetan izandako ondasunen eskualdaketak hartuko dira kontuan.

Ondasun horiek etekinik eman ez dutenean, urteko diru-sarrera garbi gisa, katastroko balioaren %10a hartuko da.

c) Ondasun higikorren etekinak.

Laguntzaren eskatzailea bakarrik bizi baldin bada, bere diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan baina osotasunean.

Bi pertsona bizi badira, une bakoitzean dagoen kotizatu gabeko pentsioaren %75a deskontatuko da beren diru-sarreretatik.

Hiru pertsona edo gehiago balira, 3.arena eta ondorengoena, pertsona bakoitzeko kotizatu gabeko pentsioaren %50a deskontatuko da.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

a) Eskatera orria beteta eta sinatuta.

b) Eskatzailearen eta elkarrekin bizi diren pertsonen unitateko gainerako partaideen edo unitate ekonomiko independentea osatzen duten partaideen NAREN fotokopiak, kasuaren arabera.

c) Hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, Nominak, Pentsioak, etab.).

d) LANBIDEK, Enplegu Estataleko Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonen buruzkoa.

Jasotako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta/edo Beasaingo Udalak emandakoak badira, Udalak lortuko du informazioa.

e) 20 zifrako kontu zenbakia.

f) Eskatzaileak eta elkarbizitza unitatea edo unitate ekonomiko independenteko adin nagusi diren kideak, sinatutako dokumentua, bertan, Udalari erakunde eskudunei eskatzeko beharrezkoak diren datuak, gizarte zerbitzuetako laguntzen onuradun izateko galdatutako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu eta datuak eguneratu ditzan baimena eman.

g) Zabor tasak ordaindua izan den ordainagiria (Tasen arloan laguntza eskaeretan soilik).

h) Ur tasa ordaindua izan den ordainagiria eta fakturazioa eraikinekoa denean, eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren agiria. Eredua eskaerarekin batera emango da (Tasen arloan laguntza eskaeretan soilik).

i) Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenagatik tarifa ordaindua izan den ordainagiria.

Aurkeztutako dokumentuak, udal-administrazioak egiazta eta berrikus ditzake eta interesatuari dokumentu horietan azaltzen diren datuen argitasunak edota osagarriak ere eska dakizkioke.

8. artikulua. Azterketa eta ebazpena

Udaleko Gizarte Ongizate sailako teknikariek laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko dituzte eta Alkateak erabakiko du laguntzak eman ala ez eman, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan. Interesatuak hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

9. artikulua. Udal zorraren konpentsazioa

Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

10. artikulua. Arau-haustek

Datuak ezkutatzek edota ordenantza honetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIA

11. artikulua.

Ordenantza honetan jaso ez diren arlo guztietarako edota bertan aurreikusi ez arren aurkez daitezkeen kasu berezi guztietarako, Udaleko Gizarte-ongizate batzordeak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean komenigarriak irizten dituen neurriak proposatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

12. artikulua.

Udal-tasen arloan laguntzak emateko ordenantza honek, indarrik gabe uzten du 2010eko irailaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa 178 zenbakian.

AZKEN XEDAPENA

13. artikulua.

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenagatik tarifak eta udal tasen arloan laguntzak emateko ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, hogeita hamar laneguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.

10.- HITZARMENA, Gipuzkoa Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsorzioaren eta Beasaingo Udalaren arteko Hitzarmena.

Alkatea jaunak (BILDU), Gizarte-ongizate batzordeko proposamenaren berri eman du, hau da:

“12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 22. artikuluan lehen mailako arretako Gizarte Zerbitzuak zeintzuk izan behar diren

adierazten du, eta horien artean Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.

Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortziotik eskaini zaigu laguntza prozesu bat garatzea eta horrela udaletako gizarte zerbitzuek gaur egun garatzen ditugun programetatik abiatuta zerbitzu globalago batera trantsizioa egitea, beti ere legearen arabera.

Beasaingo Gizarte Ongizate Sailak trantsizio hori gauzatzeko laguntza prozesuan parte hartzeko inteses handia azaldu dio eta Kontsortzioak berriz Gipuzkoako udalerrietatik jasotako erantzunetatik positibotzat hartzen du Beasaingo Udalak prozesu horretan parte hartzea.

Horrela udalerrian Gizarte eta Hezkuntza zerbitzurako eta zerbitzu psikosozialerako trantsizioa egiten laguntzeko aholkularitza tekniko programa parte hartzen duten eragileei laguntza tekniko eta prestakuntza emateko hitzarmena finkatzea beharrezkoa da; hori horrela izanik Gizarte Ongizate Batzordeak gaurko egunean egindako bileran itsatsirik doan hitzarmena Udal Osoko Bilkurari onartzea proposatzen dio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da, ondorengo hitzarmenaren edukia eta Alkate jaunari baimena ematea hitzarmena sinatzeko:

“GIPUZKOAKO HEZIKETA KONPENTSATORIOKO ETA PRESTAKUNTZA OKUPAZIONALEKO KONTSORTZIOAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren buru Gema Gonzalez de Txabbarri Miranda and. eta, bestetik, Beasaingo Udaleko Alkatea Koldo Agirre Mujika jauna..

HONAKO HAU AZALTZEN DUTE:

Haur eta nerabeei arreta ematen aritzen diren arlo desberdinak bateratzeko asmoz, erakunde biek kolaborazioa beharrezkotzat jotzen dute Gizarte eta Hezkuntza zerbitzurako eta zerbitzu Psikosozialerako trantsizioa egiten laguntzeko Aholkularitza Teknikoa Zerbitzua udalerrian garatzea.

Erakunde biek beharrezkotzat jotzen dutela elkarlanean aritzea Gizarte eta Hezkuntza zerbitzurako eta zerbitzu Psikosozialerako trantsizioan planifikazio-eredu bat aplikatu eta garatzeko.

Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioak baduela 2014ko aurrekontuan behar besteko kreditua laguntza tekniko eta prestakuntza hori gauzatzeko.

Kontsortzioak hurrengo aurrekontuetan partida horiek kontuan hartzeko asmoa duela, aurrekontuan horretarako gaitasuna dagoen bitartean.

Hitzarmen honek aurretik Udal honek eta Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioak sinatutakoa ordezkutzen du.

HONAKO HAU HITZARTZEN DUTE:

1.- Hitzarmena finkatzea, Beasaingo Udalerrian Gizarte eta Hezkuntza zerbitzurako eta zerbitzu Psikosozialerako trantsizioa egiten laguntzeko Aholkularitza Teknikoa Programa parte hartzen duten eragileei laguntza tekniko eta prestakuntza emateko.

2.- Alde bakoitzak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain.

2.1.- Kontsortzioak

- Perfil egokia duen profesional talde bat izango du, eta honek programan parte hartzen duten udal-taldeei, arduradunei, hezitzaileei zein zerbitzuarekin zerikusia duten beste profesionaleri aholkularitza emango die. Aholkularitza hiru hilean behin egingo da gutxienez eta, gainera, Udalak eskatzen duenean ere, aholkularitza taldea eskuragarri baldin badago.*
- Osorik finantzatuko ditu aholkularitza talde teknikoak eta bertatik antolatu litezkeen prestakuntza ikastaroak.*
- Bere laguntza emango du Udalak programari buruz planteatzen duen edozein gairi begira.*

2.2.-Udalak

- Hezitzaileei eta bereziki programaren arduradunei laguntza eta aholkularitza emanez betetzen duen lana betetzeko erraztasunak emango dizkio Kontsortzioak izendatutako Aholkularitza Talde Teknikoari.*
- Baimena emango die hezitzaileei eta gainerako profesionaleri Kontsortzioak antola litzakeen prestakuntza ikastaroetara joateko.*
- Zerbitzuaren garapenerako beharrezkoa litzatekeen informazioa emango dio Kontsortzioari.*

3.- Hitzarmen honen indarraldia urtebetekoa da eta luzatutzat emango da, baldin eta alde bietako batek espresuki salatzen ez badu, amaitu baino hilabete lehenago.

Alderdi biak ados daude dokumentu honen eduki osoarekin eta froga gisa bikoiztuta sinatzen eta berresten dute hitzarmen hau, Donostian”.

11.- BEASAINEN EUSKARA SUSTATZEKO 2014-2017 ALDIRAKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA ETA 2014KO KUDEAKETA PLANAren onespena.

Alkate jaunak (BILDU): Beasainen Euskara Sustatzeko 2014-2017 aldirako Ekintza Plan Estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plana onartzea da gure gaurko proposamena. Hau da 3. Plangintzaldia.

Plana egin ahal izateko, 1.go pausua aurretik eginda zegoenaren balorazioa eta ebaluazioa egitea izan da. Horretarako alde batetik Klusterrarekin elkarlanean euskararen erabileraren inguruko kaleetako eta eskoletako atarrietako neurketa egin da, aldi berean udaletxeko erabilera planaren ebaluazioa eta plan berria ere egin da, eta denok dakizuen bezala hau 2014ko apirilaren 3ko udalbatzaren osoko bilkuran onartu zen.

Horretarako duela 23 urtetik udalean indarrean dagoen udal ordenantza ere landu eta eguneratu genuen, gaur egungo egoerara egokitu genuelarik, udal langileekin, udalak azpikontratatzan dituen enpresekin, elkarte eta eragile ezberdinekin batera, baino hau ezin izan dugu aurrera atera Urkijoren mehatxuak dela medio.

Beasaindarron elkarbizitza hobetzeko tresna izatea nahi genuke eta horretarako ezinbestekoa da alderdi politiko guztion adostasunez gaurko udal batzan onartzea. Ondoren, gizarteratu egin behar dugu, eta garbi utzi nahi duguna da dokumentu irekia dela, etengabe elikatu beharko duguna guztion artean, herritar zein ordezkari politikook.”

Jarraian, Alkatea jaunak, Garbiñe Zurutuza, Euskara eta Kultura batzordeko Lehendakariari hitza eman dio eta honek ondorengoa adierazi du:

“Laburbilduta 3. Plangintzaldia dela argi adierazi du Alkateak.

Beasaingo Udalak 2003an onartu zuen lehenengoz Beasaingo Udalerrirako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa. 2003-2005 aldirako onartu zen, ondoren, Jaurlaritzak horrela eskatuta 2006ra arte luzatu zen.

2007ko martxoaren 29an hurrengo Plangintzaldia onartu zen, 2007-2011 aldikoa hain zuen ere ondoren 2 urtez luzatu da, Eusko Jaurlaritza hausnarketa fasean bait zegoen, ESEP berria prestatzeko...

Horiek horrela, 2014. urtean 2014-2017 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana Estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plana landu eta idatzi dira, udal langileekin eta herriko eragileekin elkarlanean.

2014ko ekainaren 16eko Kultura eta euskara batzordean planaren berri eman zen, eta alderdi politiko guztien ekarpenak jasotzeko epea ireki genuen, irailaren 16an gaia berriro eraman genuen batzordera. 3 hilabeteko tarte horretan ez dugu oposizioko politikoen ekarpenik jaso, baino aurrerantzean

espero dugu zuenak ere jasotzea, esan berri dugun bezala dokumentua irekia baita, eta osatzeko egina da.

BEASAINGO EGOERA:

Klusterreko datuen arabera, azken 10 urte hauetan, 2003tik 2013ra euskararen kaleko erabilerak 10 puntu egin du gora, eta etxe gehiago dira hizkuntza aldetik mistoak, batez ere gazte eta haurrak tartean dauden etxeetan. Bi hauek datu oso positibotzat hartu behar dira.

Hala ere, argi-ilunak ere badira:

- Bestetik ezagutza orokorrak %1 behera egin du denbora tarte horretan.
- V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, etxe barruan euskararen erabilerak behera egin du. Kontuan izan behar da, 1991rekin alderatuz, gaur egun zaila dela kide guztiak euskaldunak dituzten etxeak topatzea.
- Hizkuntzek, zentzua kolektibitatean, taldean hartzen dute, komunikazio tresna direlako, eta hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ezagutzak baldintzatzen du, eta guztiek euskaraz ez badakite ohikoa izango da gaztelaniara jotzea. Errealitatean hori da gizarte honetan pasatzen dena, baino etxeetan, lagun artean, koadrilen artean, kirolean zein administrazioaren barruan. Kultura aniztasuna aberatsa bada ere, euskara bezalako hizkuntza gutxituentzako zaila da hizkuntzen arteko elkarbizitza hori ondo kudeatzea, eta horretarako dira plan hauek.

2014-2017 PLAN ESTRATEGIKOAREN EDUKIA:

Plan estrategikoaren barruan hainbat ildo daude, besteak beste eta garrantzitsuenak aipatze aldera:

Familia bidezko transmisioa: Familietan euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio kanpainak egingo ditugu, hizkuntza ohituren hausnarketa eta ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzeko helburuarekin.

Irakaskuntza: Eskola kontseilua duela gutxi sortu da, eta hori da eskoletako hizkuntzaren normalkuntza bideratu eta bultzatzeko foroa, eta aurkeztu dugun dokumentu hau elikatuko duen eragile garrantzitsuenetako bat. Ezagutza areagotzea nahi baldin badugu, kontseilua osatzen duten ikastetxeak ezinbesteko ditugu.

Euskalduntze alfabetatzea: Alde batetik, lehen esan dugun bezala udalerriko talde naturalei begira (koadrilak, familiak...), horien ezagutza areagotzeko estrategiak garatu behar ditu udal euskaltegiak. Beste aldetik, ikas-prozesua azkartu egin behar da, eta euskarazko harremanak sendotzeko aukerak eskaini behar zaizkie euskara ikasi nahi duten guztiei. Krisi egoera

ekonomikoaren ondorioz langabezian geratu diren guztiei, udaletik doan eskaintzen diegu euskara ikasteko ikastaroa.

Administrazioa:

- Udalak herritarrekin harremanak euskaraz izateko dituen aplikazio informatikoak ez dira egokiak, ez bait dute jasotzen herritarren hizkuntza hautua. Beasaingo udalaren proposamenez, 2013az geroztik Gipuzkoako Foru Aldundia eta IZFE proiektu hau garatzen ari dira, epe motz batean eskubide honi berrmatu ahal izateko.

Arlo sozioekonomikoa: Herritarrekin harremana duten zerbitzu enpresa, merkatari zein lanbide heziketako ikastetxeekin elkarlana ezinbestekoa da, izan ere horrek ahalbideratuko digu hizkuntzari dagokionean ikastetxeetatik lan mundurako etena ez ematea. Lan munduari dagokionean ezin ditugu ahaztu ezta ere sindikatuak, eta beraiekin ere elkarlana beharrezkoa ikusten dugu enpresetako hitzarmenetan euskara planak txertatzeko.

Aisia eta kirola: Haur eta gazteentzako aisia eta kirol eskaintzan euskara zeharlerro moduan lantzen ari gara. Aisia eta kiroltako monitore eta begiraleei hizkuntza ohituretan eragiteko estrategien gaineko formazioa ematea beharrezkoa ikusten dugu. Kanpotik etorritakoei, ludoteka eta gaztegunean doan eskaintzeko asmoa dugu, beti ere baldintza batzuk betearaziz, hizkuntza ikastea azkartzeko eta inmersioa areagotzeko. Kanpotik etorritako haur eta nerabeengan arreta berezia jarri eta programa bereziak garatzea ikastetxeekin elkarlanean.

Liburugintza: euskarazko liburuaren irakurzaletasuna bultzatu eta irakurle berriak erakartzeko asmoz ekintza ezberdinak burutu ari gara, igerilekuko biblioteka zerbitzua, irakurri gozatu eta oparitu egitasmoa, irakurleak erakartzeko asmoz irakurketa tailerra jarri berri dugu martxan... Irakurketa erraza egitasmoa bultzatu nahi genuke, irakurle berriak euskarara erakartzeko. Gazteei begira, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, teknologia berrietan inbertitzen jarraitzeko asmoa dugu, e-bookak herriko gazteen eskura jarritz.

Kulturgintza: 2012. Urteko Igartzako parte-hartze prozesuari jarraituz, Beasainen zer nolako kultura nahi dugun hausnartzeko kultur mahaia jarri genuen abian duela urte bete, eta horren egiteko nagusienetako bat kulturaren plan estrategikoa osatzea izango da. Beti ere, herriko euskarazko kultur sorkuntza bultzatuz, kultur eskaintzan euskarazko produkzioa berrmatuz eta euskarazko kultur tradizioari urteko eskaintzan lekua emanez. Herriko kultur elkarteetan euskararen erabilera gehitu. Hitzarmenen bidez hausnarketa bideratu.

Publizitatea: Udalaren publizitate eta komunikazio euskarrietan %70 euskaraz izatea. Kaleko eta Kiroldegiko informazio panelak euskara hutsean.
Corpus plangintza: Herriko toponimia jasotzeko mapa berria egiten ari gara.

Hedabideak: Krisi garai hautan tokiko euskarazko hedabideak oso garrantzitsuak dira Goierri bezalako arnas guneentzat, horregatik Goierri telebista eta Hitzari ez ezik, Goiberriri ere biztanleko 1€ko diru laguntza ematen zaio iaztik. Hedabideek hizkuntzaren sustapenean dituzten eginkizunak landu nahi dugu eta euskarazko prentsaren harpidetza sustatzeko kanpainetan ere parte hartuko dugu.

2014eko erabilera planeko ekintzen artean besteak beste hauek jorratzeko asmoa dugu, eta hurrengo Kultura eta euskarako batzordera eramango dugun proposamenak hauek jasotzen ditu:

1. Teknikarientzako prestakuntza batzordeak euskaraz jarraitu ahal izateko.
2. Saitetan euskarazko ahozko erabilera indartzeko eta jarrera asertiboak sustatu.
3. Ordenagailuetako softwarea eta aplikazio informatikoak euskaraz jarri. Sor daitezkeen software berriak hizkuntzaren kudeaketa egokirako diseinatu.
4. Udalak azpikontratatzan dituen enpresekin, euskara plana diseinatu eta garatzeko asmoa dugu, adibidez Aldabe, Biharko (Arangoiti kudeatzen duen enpresa), Goikus, Goxara, Masquatro... hizkuntza baldintzen jarraipen zorrotzagoa egiteko asmoa dugularik.
5. Plenoak eta herritarrekin egiten ditugun bilera ireki guztiak euskaraz izango dira, aldi bereko itzulpen sistemak hizkuntza aukeratzeko askatasuna eskaintzen digu, modu honetan, euskarari, dagokion lekua ematen diogularik, eta hizkuntzen elkarbizitza besarkatzeko edo elkarbizitza hori sustatzeko bidea da. Sistema berri honen bidez, irtenbide bat eman nahi izan diogu askotan gertatzen zaigun errealitate bati, izan ere, elebazarren hizkuntz eskubideak elebidunon kaltetan izaten dira, eta euskaldunon hizkuntza eskubideak zanpatuta.

Ikusten duzuen bezala euskararen normalizazioan aurrera pausuak eman nahi baditugu, eskuak gurutzatuta bertan goxo ezin gaiteske geratu, guztion ahalegina eskatzen duelarik honek, dakigunona eta ez dakitenena. Batzuetan eroso eta besteetan deseroso sentitu behar dugu guztiok, baino egoera horiek gaudituz aurrera jo behar dugu, hizkuntzen arteko elkarbizitzan eta normalizazioaren bidean. Honekin lotuta badugu beste egitasmo bat, laster abian jarriko duguna, BIDAIATU.

Guzti honengatik, alkateak esan duen bezala Beasaingo udal gobernu honen ustez ahalegin hau denon artean, elkarlanean, eta kontsentsuaren bidetik egin behar dugu, konfrontazio politikotik at.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guztiok esaten duzunean, zeinetaz ari zara, gu guztiok edo zuek?. Ekainaren 16an, orain dela lau hilabete, korreo bidali zitzaigun kudeaketa plana eta plan estrategikoa. Modu digitalean nik eskatu nuen modu errazagoan lana egin ahal izateko. Ekainaren 23an bidali zitzaidan. Ezinbestean uztailaren 1erako gure erantzunak emanda eduki behar genituen. Uztailaren 1ean gure taldeko iritzia eman nuen, baina lau hilabete pasa dira eta erantzunik ez dut jaso. Orduan esan nuena, pasatu zaigun dokumentuan ez dut ikusi. Batzordean lantzeko aukerarik ez dugu izan. Zuk gaur esan dituzun gauzak batzordean ez zaio denborarik eskaini, batez ere, kudeaketa planetaz hitz egiteko. Kudeaketa planak ekintzak behar ditu eta guk jaso dugun kudeaketa planak ez du ekintzarik. Estrategiak dira. Plan estrategikoak, lehentasunak markatu behar lituzke. Zuk aipatu dituzunak, euskaraz bizi nahi dugunok, noski, helburu ditugu. Kontua da, lehentasunak non jarri. Guri bidali zaigun plan estrategikoa, 2003koaren ea berdina da. Kudeaketa planak gutxienekoak ditu, hau da, diruz baloratzen da, denboran baloratzen da eta lehentasunak ezartzen dira. Esan duzue inkesta bat egin dela. Inkestak esaten du, Ezkiaga auzoan doblea hitz egiten dela orain hamar urteekin alderatuta. Erabilera bikoitza dela. Nik ez dakit horrela den. Nik ez dut uste. Ez dut uste, aspalditik Txillardegik teori bat markatuta dagoelako, hau da, erabilera aurrera egin ahal izateko, kopuru askoz handiago batean jakinduria egin behar da aurrera. Pauso horiek zoritxarrez ez dira hain azkar ematen. Inkesta horrek balio behar du, nire ustetan, lanerako, hau da, kudeaketa planean lehentasunak markatzeko. Inkesta bideratuta badaude, jakin zein arlotan lana egin den eta balio duen ala ez. Nik esaten dituztenak esanda, nik eskatuko nukeena da, puntu hau mahai gainean uztea eta batzordean lantzea, alde batetik eta bestetik, 2014ko kudeaketa plana urrian planteatzea?. Nik uste dut 2015ekoari begira hasi behar dugula eta ez 2014koarekin, atzean dirulaguntzarik ez badago behintzat. Ez dugu aukerarik izan batzordeetan honetaz hitz egiteko. Ni harritu egin naiz hau ikustean. Berritot, mahai gainean utzi eta batzordeak monografikoak planteatu, kudeaketa planari dagokionean, batez ere.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Egia esan, suntsituta uzten nauzu. Ez dut beste hitzik. Nik uda aurreko batzordean azaldu nuen. Teknikariei esan nien bidaltzeko dokumentazio guztia eta epe bat eman zitzaizuen ekarpenak azaltzeko. Harrituta nengoen ez genuelako ekarpenik jaso. Nik ez dut inolako ekarpenik jaso. Bihar bertan teknikariari galdetuko diot zer pasa den. Nik ez baitut inolako ekarpenik jaso zuen aldetik. Dudan gauza bakarra da e-mail bat eta esaten duzun gauza bakarra da, orain bukaera esan duzuna

inkesta eta portzentajeari buruz. Azken batzordean zu ez zinen etorri, zure taldeko kide bat etorri zen eta ez zuen ahoa ireki gaia hau atera genuenean. Batzorde hartan beste gai batzuk ere bazauden, baina gai hau atera genuen, hitz egin eta eztabaidatu genuen.”

Eva Diez andreak (EAJ) esan du bera ez dela gogoratzen puntu hau tratatu izana.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Ez zara gogoratzen?. Gai hau konfrontazio politikotik at atera nahi dugu. Datorren astean bertan monografikoa batera deituko dugu, gai honetaz hitz egiteko.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ez da konfrontazio politiko bat hizkuntzari buruz, baizik eta lan konfrontazioa.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Guk lan-metodologia daukagu eta metodologi horretan zerbaitetan akatsa izan da, ¡kasualidadea!. Guk ez dugu jaso dokumenturik. Guk bidali genuen, zuek ez duzue jaso. Tratatzeke bilera bat egiten dugu, partido nacionalista vascoko bi kide zaudete kultura eta euskarako batzordean, bat ez zen etorri eta bestea han zegoen. Harritzen nauena da, puntu hau pasatu izana eta hori horrela bada oso larria iruditzen zait.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Niri harritzen zaiena da, azkeneko batzordeko gai-zerrendaren ere, kudeaketa plana ez egotea. Osoko bilkura dator eta nik ez dakit hitz egin zenuten edo ez. Lanagatik ez nuen joaterik izan, baina gai-ordenan ere ez zegoen. Uztailaren 1ekoa da nire korreoa, hain zuzen ere, teknikariari bidali niona. Ekarpinak egiteko prest, baina berriro diot, 2015ekoari begira hasi beharko ginbateke eta ez 2014koa onartu. 2014ko kudeaketa bere horretan beharko du. Nik eskatzen dudana da 2015ekoa lantzea eta plan estrategikoan lehenetasunak jartzea. Guri iritsi zaigun dokumentuan ez ditut ikusi. Osotasunean dago. Jaurlaritzak bidaltzen duen plantila da, Ermuak bezala Beasainek betetzen duena. Iruditzen zait hizkuntzan bide bat egiten dela, hobeagoa eta okerragoa eta egin denetik landu behar da. Hori da nire iritzia. Eskertuko nuke puntu hau mahai gainean uztea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Hori kontutan hartzen dugu eta puntua bertan behera utziko dugu. Berriro batzordean tratatuko da eta landutakoa berriro Osoko Bilkurara ekarriko dugu.”

12.- IGARTZAKO BATZORDE BEREZIA. Batzordea bertan behera uztea.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“2003ko abenduaren 4an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren bidez, Igartzako Batzorde Berezia eratu zen, funtzio hauekin:

- 1. Igartzako plan estrategikoa.*
- 2. Egun dauden eraikinen berrekuratze-proiektua.*
- 3. Inguruaren hirigintza-proiektua.*
- 4. Erabilpen esleipenak. Egitasmo eta ordenantza urbanistikoak.*
- 5. Gastuak onartzea.*
- 6. Ikerketak....*

Bere menpe, Batzorde Teknikoa zegoen eta helburu horiek guztiak kudeatzeko koordinatzaile bat kontratatu zen, baina berak eskatuta 2013ko martxoaren 5ean kontratua bertan behera geratu zen.

Ordutik honantz, batzorde horrek funtzionatzen jarraitu du baina kontuan izanik:

- Igartzako Batzorde Berezia sortu zeneko funtzio gehienak burutu direla.*
- Koordinatzailea ez dagoenetik, Kultura eta Euskarazko Batzordeko teknikariak direla Igartzako Batzorde Berezian tekniko bezala jarduten dutenak.*
- 2013-12-19an Igartzako Batzorde Bereziak egindako bileran, bere lehendakariak azaldu zuela Igartzako Batzorde Berezia bertan behera uzteko, gobernu taldearen asmoa.*
- 2014-01-23ko Udalbatza Osoan hala eskatuta, Igartzako Batzorde Bereziak bere horretan jarraitu duela Igartzaren kudeaketarako esleipen prozesua amaitu bitartean.*
- 2014-04-16an, lehiaketa prozesua amaitu eta gero, esleipendun berriak kontratua sinatu duela Beasaingo Udalarekin.*

Horren ondorioz, Alkatea naizen honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten diot:

Igartzako Batzorde Berezia eta bide batez Batzorde Teknikoa bertan behera uztea eta bere funtzioak Kultura eta Euskera batzordeari ezartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “gai hau orain dela hilabete batzuk aurkeztu zen eta argudio berdinekin. Nik uste dut batzorde batek adjudikazio bat egiten duenean, bere lana ez dela amaitzen, baizik eta hasi egiten da. Igartzako batzordeak esleipen berri bat egin du eta Igartzak egitek gauza asko izango ditu. Nik uste dut, ez dagoela soberan batzorde batek bereziki Igartzaren funtzionamenduan jarraipena egitea. Euskera eta Kultura nahiko kargatuta daude. Nik ez dakit, teknikariak euskara eta kulturakoak behar duten edo

beharbada, adjudikazioa hartu dutenak izan behar diren, baina nik ez dut soberan ikusten Igartzako jarraipena egingo duen batzordea, batez ere, oraindik ez dugulako ikusi Igartzak zer behar duen, zertarako izan behar duen, ahal dela jendez gainezka egun joan eguna etorri. Nik pentsatzen dut batzorde hori mantendu egin beharko litzatekeela edota batzordeen batek jarraipen zehatza egin beharko liokeela.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Igartzako batzordearen sorrera 2003ko abenduaren 4ko udalbatza osoan egin zen. Bertan azaltzen da zein helburuekin sortu zen batzorde hau eta orduan esan zen batzorde puntuala zela. Batzorde horretan organigrama bat zegoen, Igartzako monumentu multzoaren batzorde berezia zegoen, batzorde teknikoa zegoen eta Juanxo Agirre koordinatzailea zegoen. Pertsona hori orain dela bi urte joan zitzaigun eta ordutik Igartzako euskara eta kultura sailetik eraman da, Igartzako batzordea. 2012. urtean parte-hartze prozesu bat egin zen eta herritarrei galdetu zitzaien nolako norantz nahi zuten Igartzari ematea eta parte-hartze prozesu horretatik ondorioztatuta, erabaki zen hiru hanka izan behar zituela: kultura, euskara eta turismoa eta merkataritza, hezkuntzarekin batera. Hau guztia honela izanda, 2014ko urtarrilaren 23ko udalbatzara ekarri genuen batzordea bertan behera uzteko proposamena. Orduan eskatu zitzaigun, Igartzako kudeaketaren adjudikazioa egiteko zegoela, orduan Dolarea Hotelak zuen hango ustiapena, eta eskatu zitzaigun ustiapen berria esleitu arte Igartzako batzordea uzteko. Puntu hau ulertuta atzera bota genuen eta esan genuen esleitu eta gero batzorde bat sortuko zela eta batzorde hori osatuko luketela kudeaketa eramaten duen enpresak, ALDABE, Igartzako gaiak eramaten dituen udalaren kultura eta euskarako pertsona bat eta turismo eta merkataritzako teknikariak. Batzorde hori apiriletik martxan dago, horren informazioa eman da Igartzako batzordean eta uda aurretik egindako batzordean esan zen, plenora ekarriko genuela Igartzako batzordea bertan behera uzteko eta kultura eta euskaratik kudeatuko genuela. EH-BILDUko udal gobernari iruditzen zaigu efizientziagatik ez dugula beste batzorde bat mantendu behar, mantentze aldera. Asteartean bertan asmoa dugu, kultura eta euskarako beste gai batzuk eskuartean ditugula, Igartzako berriak emateko.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Yo acudo a la comisión de Igartza y en esa comisión mostré mi disconformidad con la disolución de la misma. Así mismo mostré mi deseo de acudir a esas reuniones que se han mencionado, por entender que la puesta en marcha de una nueva adjudicación debe tener un control político. Lo cierto es que no he recibido ninguna invitación para asistir a esas reuniones, lo cual me sorprende porque la comisión de Igartza, que de hecho ya no existe, porque no se reúne ni realiza ningún control sobre lo que sucede en Igartza. Yo entiendo que hurtar al resto de los concejales cómo se está desarrollando esa gestión de Igartza, no me parece bien. Vuelvo a mostrar mi disposición a la concejal que se está ocupando del tema de poder acudir a esas reuniones.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Udal barruan kudeaketa ezberdinak ditugu eta kudeaketa ezberdin horien jarraipena egin ahal izateko, lan-talde batzuk daude. Berdin pasatzen da zinearekin. Zineko kudeaketa mahaian ondorengoak biltzen dira: GOIKUS, GOIENIZ eta Udal teknikari eta politikariak. Igartzako kasuan berdina pasatzen da. Biltzen dira, ALDABE eta udalaren teknikariak, turismo eta merkataritza eta Igartza arloa eramaten duen euskara eta kulturako teknikaria eta neroni. Baldintza pleguan aurreikusten zen bezala, lan-mahai hau barruko lan-mahaia da, guk lan egiteko lan-mahaia eta lan-mahai horretatik ateratzen diren gaiak batzordeetara eramaten dira. Ez ditugu fantasmak ikusi behar ez dauden lekuan. Inori ez zaio ezer ukatzen. Lana egiteko modua da, gu gaude gobernuan eta momentu honetan horrela eramaten dugu.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Si a la mesa de trabajo del cine acude GOIENIZ, que es un ente no perteneciente al Ayuntamiento, y si a esa mesa sólo pueden acudir “barruko jendeak”, entiendo que como concejal del Ayuntamiento soy de dentro. No entiendo esa negativa a no permitir acceder a esas reuniones a un concejal. No tengo la suerte que tienes tu de pertenecer al grupo de EH-BILDU, como has dicho en varias ocasiones, pero entiendo que como concejal del PNV, tengo derecho a solicitar el que pueda acudir a reuniones que se celebren dentro del Ayuntamiento.”

Alkate jaunak (BILDU): “Kontutan hartuko dugu eta deitua izango zara.”

Publikoan dagoen pertsona batek galdetu du ea esleipen guztietan horrelako jarraipena egiten den.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Ez”.

Alkate jaunak (BILDU): “Esleipenaren araberakoa da.

Malu Vallés andreak (EAJ): “Yo desconozco si el actual equipo de gobierno mantiene una gestión estrecha y directa y un control sobre las adjudicaciones, pero desde luego es evidente que cuando uno adjudica un servicio por primera vez, debe mantener un control muy estricto sobre lo adjudicado. No se trata de una situación rodada y que ya viene dada, sino que hay que ver si está funcionando, si las relaciones son correctas, si es adecuado lo que se ha entendido de los pliegos, etc.”

Publikoan dagoen pertsonaren ustetan, jarraipen hori ez bakarrik lehenengo aldian denean egin behar da, baizik eta jarraipena denean ere bai, diru publikoa delako.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik dudarik ere ez daukat gobernu honen saiakera ahalik eta jarraipen zorrotzera egitea dela, bai Igartza eta bai besteak. Kiroldegian besteok ere parte-hartzen dugu. Ez gara esaten ari ez zaiolako

Igartzari jarraipenik egiten, esaten duguna da Igartza oinez hasten ari dela eta behar bada begi zorrotzagoak jarri behar zaizkiola gainean. Errazagoa da ondo funtzionatzen duen zerbaitekin: ludoteka, gaztegunea...Oso ezberdina da euskara eta kulturako batzorde batean sartzea, beste hamaika mila gauza dituenak, edo bakarrik hori kontutan izatea.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Gure helburua ahalik eta jarraipen zehatzena egitea da, horretarako ditugun baliabideekin. Gure ustetan, Beasaingo Udalak barne baliabide gutxi ditu. Gauza asko azpikontratatuta daude, baina hori horrela izanda ahalik eta jarraipen handiena egiten da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Igartzan esleipen berria egin da eta oinez hasi da. Tresna bat badugu, nik esaten dudana da, horretarako erabiltzeko. Agian Alkatearen eskumena da, eta Alkateak erabakiko du, baina..Intentzio horrekin esaten dut. Ez nabil ezer ezkutatu nahian. Niri iruditzen zait eskaera logikoa dela”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Maluk esandakoari erantzunez, adierazi nahi dut hemen ezin dela eszenifikatu udal gobernu honek ez duela informazioa ematen eta ez duela bileretara deitzen. Lehenengo egunetik gaur adierazi duzuen prestutasuna erakutsi bazenuten, hobeto ibiliko ginateke, bai gu eta baita ere zuek.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR).

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da, Igartzako batzorde berezia bertan behera uztea.

13.- MOZIOA, BILDUK aurkeztutakoa Kutxabank-i buruz.

Alkatea jaunak (BILDU), ondorengo mozioa irakurri du:

“Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari errepasso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea.

Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziarioa bermatu, udalen finantziario eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategiteak sortu den Kutxabanken ildo ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den privatizazioaren bideari ateak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtzioagatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioagatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:

- 1. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.*
- 2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.*
- 3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.*
- 4. Bertako ekonomia errealearen mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:*
 - ⤴ Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.*
 - ⤴ Udalei aurreikusitako inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.*
 - ⤴ Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jardurekin*

amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.

- △ Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.*
- △ Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea.”*

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutxak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta Beasaingo Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Beasaingo Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.*
- 2.- Beasaingo Udalak Kutxaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.*
- 3.- Norabide horretan, Beasaingo Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Desde el Partido Popular consideramos que esta moción es una maniobra política de Bildu, y su afán por diferenciarse de las demás formaciones políticas con una postura demagógica y partidista que no responde a las necesidades y los beneficios reales del so guipuzcoanos y de la Obra Social.

No se plantea cómo conseguir la solvencia de la entidad porque, no podemos olvidar, que la obra social de KUTXABANK se alimenta de los beneficios de la entidad, antes, ahora y siempre, y no sólo de las decisiones políticas.

Sin embargo, Bildu hace caso omiso a este aspecto, cuando todos sabemos perfectamente que sin solvencia, sin beneficios NO HAY, repito, no hay Obra Social.

Si el modelo sugerido por Bildu llegara a implantarse supondría la más absoluta decadencia de la entidad financiera más importante de Gipuzkoa y del País Vasco.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk mozioaren aurka bozkatuko dugu eta horretarako arrazoia azalduko dut. Esaten da KUTXA pribatizatu nahi dela, baina nik dakidala KUTXA inoiz ere ez da izan publikoa. KUTXAk alde publiko bat izan du, baina lan talde berriak estatutuetan eragin duen arte, 79 ordezkarietik %50a bezeroena zen, %40a erakunde publikoena, %5a langileak eta beste %5a, irabazi gabeko elkarteak. Publikoa edo pribatu esaten denean, nik uste dut behin ere ez dela pribatua izan. Lan talde horretan landu eta gero proportzionalidadeak nola behar duen..., inoiz ez du izan KUTXAk gaur duen bezain besteko kontrol publikorik. Hamabost ordezkarietatik, hamalau publiko dira. Bakarra da langileena, esan dezakeguna pribatua. Beste guztia, publikoa (Batzar Nagusiak, Donostiako udala eta Foru Aldundia). Proportzionalidadea izan da eta kasu honetan BILDURI tokatuko litzaioke lurraldean duen ordezkaritza (%43a), hau da, sei ordezkari. Lau alderdi jeltzaleak, hiru alderdi sozialistak eta bat alderdi popularrak. Langileek izango lukete gainontzeko ordezkaritza. Hala ere legea tarteko, diskusioak ez luke amaierarik izango. Ekainean ekarri genuen proposamen bat eta esan zitzaigun landuko zela eta hitz egingo genuela horretaz eta gaur arte. Lau hilabetetan ez dugu aukerarik izan horretaz hitz egiteko eta ez zait iruditzen ibili behar dugunik, ea goitik zer esaten zaigun. Ekainean proposatu genuena izan zen, doan akzioak eman beharrean, Udalak akzioak erostea, horretarako kontusaila eratuz. Akzioen doakotasunez hitz egiten da, baina badirudi Foru Aldundirako txostena egin duen abokatuak berak ere ez du esaten doakotasun hori denik irtenbidea. Luzera begira doakotasun horrek udalek despatrimonializatu egingo litzuke.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Ez naiz eztabaidan sartuko. Komunikabideetan asko entzun den gaia da eta anitzeko dela esango dugu, baina azkeneko hilabete honetan hitzaldi interesgarri batean egongo ginen Igartzan eta, hor

azaldutakoaren arabera eta garbi ulertuta, orain arte publikoa den gauza bat nola planteatu diezaioke udalari erostea?. Ez dugu ulertzen publikoa dena erosi behar izana. Hortik abiatuta, guretzat ez du ez hanka ez bururik. Hori da gure irakurketa, zuek zuena egiten duzuen bezala. Guk uste dugu kontrol hori galdu egingo dela eta horrezaz gain esan genezake, EH-BILDUK gutxienez lantzeko zenbait pauso eman dituela, KUTXABANKeko batzordeetan bozketa eramateko nahia azaldu duela eta EAJko den Iturbek atzera bota ditu. Legez, %23 batek horri baiezkota eman izango balio, gutxienez bozkatu beharra dago, nahiz eta gero bozketa galdu, baina KUTXABANK-en EH-BILDUK ez du aukerarik izan berak sartu nahi zuena sartu ahal izateko. Gutxienez, hitz egiteko, lantzeko eta jendeak bere iritzia emateko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU; ARALAR).

Aurkako botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu aurkeztutako mozioa.

14.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2014ko uztailaren 14tik 2014ko urriaren 11 bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2014ko uztailaren 14tik 2014ko urriaren 11 bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

Una honetan, Alkatea jaunak nahiz eta gai-zerrendatik kanpo egon, ondorengo dio: “Atzo zoritxarrez emakumeen aurkako indarkeria kasua gertatu zen eta Beasaingo udal gobernuak eta gainontzeko alderdiek ere horrela adierazita, atzo pasatutako eraso sexistaren aurrean bere gaitzespena eta salaketa eta elkertasuna adierazi nahi dio familiari eta hurbilekoei. Esan, J. M. Iturriotz kale inguruan pasatu zela eta bertan, bai udaltzainek eta baita ere ertzainek interbenitu behar izan zuten. Instituzioek ardura berezia dugu genero indarkeriagatik etorri litezken eraso eta jazarpenen kontrako neurriak hartzen, emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako politiketan jarrera aktiboa izanez, politika integral eta koordinatua, osatuz eta prebentzio sentsibilizazio mailako neurriak hartuz, baina Instituzioetatik areago jendarte osoak du horri aurre egiteko egin beharra. Bestalde genero bereizketatik etortzen den edonolako eraso eta giza-eskubideen urraketa onartezina da eta zentzu horretan beharrezkoa da, jarrera eta joera horiek salatzea, biktima izan dela bakarrik sentitu ez dadin batetik eta genero indarkeriaren biktima bat gehiago egon ez dadin, bestetik. Azkenik aipatu bihar arratsaldeko zazpietan, San Martin plazan ASMUBEk deituriko elkarretaratzea izango dela eta guk bat

egiten dugula deialdi horrekin. Bertan zaudeten guztioi gonbidatzen zaituztegu bertara etortzea.”

15.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

GERNIKA PASEALEKUKO PIKTOGRAMA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Apirila inguruan galdera bat egin nuen Gernika Pasealekuan dagoen piktogramari buruz. Esan zitzaidan hirigintza batzordean galdetuko zela, Ezer egiteko asmorik baduzue?”

Alkatea jaunak (BILDU): “Ez, ez dugu ezer egin.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Datarena galdetu nuen 1990eko data jartzen zuelako eta gure ustez horrela ez da. Hirigintza batzordean txostena eskatu genuen eta ekainena eman zuen eta ikusten da ez dela ordukoa. Eskatzen duguna da hori kontrastatzea eta aldatzea. Eskerrikasko”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko bederatzia eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.